



Estitxu Fernandez eta azken urteotan landu duen proiektua. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Emakumeek beren erditzearen jabe izan behar dutela aditzera eman du Estitxu Fernandezek

Haurdunaldiaren bukaeran dagoela, Estitxu Fernandezi paperezko haurra jaio zaio zazpi urteren buruan; orain zazpi urte hasi baitzen erditzearen gainean euskaraz argitaratu den lehen liburua sortzeko lanean.

AE | DONOSTIA

“Gure erditzearen jabe. Erditze kontzientearen garrantzia: informatuta egotea eta gure egoeraz jabetzea” (Erein) ez da Durangoko Azokan aurkitu daitekeen ohiko produktua. Psikologia eta Irakasle ikasketak egin dituen arren, Estitxu Fernandez (Lesaka, 1975) batez ere kazetaritzan aritu da ETBn eta beste hainbat hedabidetan. Haleren, azken urteotan psikologia-ekin eta bereziki amatsunarekin lotutako gaietan trebatu da. Orain kaleratu duen proiektu honekin, liburua baino zerbait gehiago dirudi-eta, bere ibilbide profesionalen uztartu dituen alor desberdinak bildu ditu.

Orain zazpi urte etxean erditu zen emakume bati egindako lehen elkarrizketa hura –emagina zen gainera; beraz, gauzak garbi zituen– hastapena izan zen, eta Estitxu Fernandezek argi ikusi zuen orduan emakume horiek «erabaki kontzientea» hartzen dutela; «euren buruaz eta haurrez ardura handia dute», azaldu zuen atzo. Erditu diren zenbait emakumeren bizipenen bilduma den arren, berea «ez da etxean erditzearen aldeko liburua», argitu nahi izan zuen.

Ginekologoak eta emaginak elkarrizketatu ditu eta, horretaz gain, dokumentazio handia jaso duela aipatu zuen. Egin dituen ikasketen artean Gestalt eta Doula formakuntza jaso omen du, eta Jaio Aurreko Kantuko –Estatu

ERABAKI

Emakumeak, ginekologoak eta emaginak elkarrizketatu ondoren, honetaz jabetu zen: emakumeak berak erabaki behar duela nola erditu nahi duen. «Ez da erditze fisiologikoaren aldeko liburua –aipatu zuen–, baizik eta erditze kontzientearen alde»

frantsesean arras hedatua dagoen teknika bat; hots, kantaren bitartez erditzea laguntzea– laguntzailea ere bada.

«Ez da erditze fisiologikoaren aldeko liburua, baizik eta erditze kontzientearen aldekoa: emakumeak behar du informatua egon, eta gero geure errealitatearen gaineko informazio izan», aipatu zuen. «Geure errealitatea onartzen badugu, gusturago aterako gara erditze horretatik». Amatsuna osotasunean ikustearen beharra defendatzen du bere liburuan Estitxu Fernandezek; finean, haurdunaldia prozesu orokor baten zati bat besterik ez baita. «Kontrolaren gizartean bizi gara, eta haurdunaldia eta erditzea oso kontrolatua nahi dute. Ondo dago, baina batzuetan emakumearentzat gehiegizkoa da, beldur handiak sortzen dituelako».

Erditze medikalizatua eta naturala bi muturretan zeuden, baina gaur egun gero eta gehiago hurbiltzen ari dira, eta horren alde agertu zen egilea. Bakoitzak nahi edo ahal duena aukeratu dezala defendatzen du, baina beti aurretik informazio osoa izanda. Estitxu Fernandez bera izan daiteke aipatzen duenaren adibide: Donostiako ospitalean erdituko dela aitortu zuen, berea arrisku handiko erditzea izango omen delako. Agian, ez da aukera izanda hautatuko lukeena, baina segurtasuna da garrantzitsua. Hori bai, nola izango den jakiten saiatu da.

Munduko Poesia Kaierak bildumaren harpidetza kanpaina abian da

GARA | DONOSTIA

Munduko Poesia Kaierak bilduma jarri du abian Susa argitaletxeak, mundu osoko poeten lanak euskaratu eta euskal irakurleari aurkezteko asmoz. Beñat Sarasola idazle eta literatur kritikariak koordinatuko du 2014ko apirilean martxan hasiko den proiektua. Horretarako harpidetza kanpaina abiarazi dute dagoeneko.

64 orrialdeko sei kaier (aurorean antologiak denak) argitaratuko dira urtero: hiru udaberrian eta hiru udazkenean. Bitxiena zera da, bildumak ez duela mugarik aukeraketa egiterakoan ez baitute inoren kanonik jarraitu behar; hau da, poesiazaleek eta itzultzaileek gogo duteneino ekarriko dizkiote euskarari

mundu osoko poeten lanak eta, aipatu dutenez, bilduma osatzeko eta itzulpen lanak egiteko edozein ekarpen ondo etorria izango da.

Datorren urtean Greo Traki, Maria Merce Marcal, Aime Cesaire, Carlos Drummond de Andrade, Emily Dickinson eta Miguel Hernandezen antologiak argitaratuko dituztela iragarri zuen Susa argitaletxeak. Itzultzaileen artean, Itxaro Borda, Iñigo Aranbarri eta Koldo Izagirre daude, besteren artean.

Urtero etxean sei liburu jasotzeko urteko harpidetza 40 eurokoa da, liburu bakoitzeko 6,66 euro (harpidetza Kaierak.com-en egin daiteke). Liburu dendetan 10 euroan salduko dute. Susak Durangoko Azokan izango duen standean zero alea izango da eskuragai.

«Euskal Herria» aldizkariaren azken alea Gasteizi buruzkoa da

GARA | DONOSTIA

2003an sortutako “Euskal Herria” aldizkariaren azken alea kaleratu du Sua argitaletxeak eta Gasteizi eskainitako zerbaki monografikoa da, hain zuzen ere. Argitaletxeak jakinarazi zuenez, aldizkariaren ibilbidearen amaieran daude, proiektuari eutsi ahal izateko bitarteko ekonomikorik ezean.

«Itzal handiko aldizkari horren itxierak bazterrak goibeldu baditu ere, baikotasuna hasi da berriro ere zabalitzen aldizkariaren gogoei eta edukiei segida emango dien Euskal Herria liburu bil-

duma berrirako harpidetza eskariei esker», zioen atzo argitaletxeak. Dagoeneko lagundu eta irakurle askok eman omen dute izena, eta hasieran jarritako helburuetatik hurbil daudela iragarri zuten, baina oraindik azken bultzada falta zaie.

Ildo horretatik, kanpaina egiten ari dira zuzenean harpidedunekin, eta haren azken urratsa Durangoko Azokan gauzatuko da, liburu bilduma berriari eskainiko dioten saltokian.

Bilduma berri hau orain arteko harpidetzaaren prezio berean, urtean sei titulu, bi hilean behin, jasoko dira.

RECONOCIMIENTO

Budapest rinde homenaje a Robert Capa con un nuevo centro de fotografía

Budapest abrió ayer al público el nuevo Centro Robert Capa, con el que se rinde homenaje a este mítico fotógrafo, nacido en la capital magiar hace un siglo. La muestra que inaugura este nuevo centro –financiado con dinero público– trata de analizar y enseñar cómo fotografiaría hoy Capa, considerado uno de los fotógrafos más importantes del siglo XX. El Centro de Fotografía Contemporánea Robert Capa se define como una institución centrada en la formación y como sede de muestras fotográficas en Budapest. Albergará a partir de enero talleres para profesionales y aficionados, con ponencias, clases de técnicas de fotografía, cursillos de varios días o de fines de semanas. «Planeamos invitar a ponentes de la Agencia Magnum, con los que ya negociamos», explicó a Efe Orsolya Körösi, directora de la nueva institución, situada en el centro de Budapest.